

EUSKEREA EGUNERIK EGUNERA

Aurtengo martiaren 10n. egunean irakurri al izan dogu DEIA'n Gotzon Lobera'ren idazlan bat eta, egia esan, zer-pentsau emon daust. Ona emen jakingarri batzuk:

- Euskerea salbatzeko gakoa edo "klabe" a bakoitxaren aleginean dago.
- Alegin au ez da bardiña euskeraz erriak egiten dauan lekuetan eta oitura ori galduta dagoan lekuan, Enkarterrian esaterako.
- Gaur euskerea iñoz baiño obeto dabillega esan daikegu, baiña ez bardin, esaterako, iparraldean eta egoaldean.
- Euskerea arremen-izkuntza izatetik ikasle izkuntza izatera aldatu da.
- Euskeraz itz egiten askok jaikin arren, oneik be arremenetan erdera erabilten dabe sarritan.
- Jenteari euskeraren arrotasuna emon bear jako.
- Bizkaieratik batua urrin dago eta or zubi bat egin bear da.
- Euskera batua egiterakoan eredu okerra artu genuen.
- Orain konturatu gara batuak ez dautsola erantzuten gure eguneroko bizi-moduari.

egitea, baiña, gero, geuk erderaz egiten dogu berba kalean.

Orra or aldi laburrean, gauzak aldatzen doazela ikusteko agiri bi: Batua berean itzita, geurea, bizkaiera, erabilteko eta bizirik aterateko alegiña egin bear dogu eta orretarako gure euskerea kalean erabili.

Gu eskolara joaten asi giñanean, barruan erderean baiño ez zan erabilten, baiña kanpoan beti euskeraz berba egiten gendun, gaur bestetara da: Ikastoletan euskeraz egiten dogu baiña kanpoan erderaz. Au atzerakuntza aundia da euskerearentzat.

Alegintzen dira, toki batzutan beintzat, erriak euskerea erabilteko bideak zabaltzen, Mungia'n esaterako Euskalduntzen taldeak, eta ortik doa bide zuzena: Latiñaren azkenengo urratsak eskoletan eta Ikastetxe nagusian izan ziran gero betiko galtzeko, izkuntza barden barruan betiko ostenduta bizi izateko. Ez al da olakorik jazoko gure euskereaz! ■

Olazar'tar Martin'ek



Egun bi geroago gutunen arloan eta Karlos Orueta'k idatzita beste eskutitz bat agiri da: Gernika-aldeko Gaitegiz'tik idazten dau eta Ameriketako euskal-etxeetan euskeraz berba egiteko aukera geiago izan daua diño, emengo bere erri-inguran baiño. Guk epaikari edo juezai eskatzen dautsegu euskeraz berba